

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5063

*1832/2025 EBAZPENA, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez huts-zuzenketa egiten baita Ebazpen honetan: 1774/2025 Ebazpena, azaroaren 4koa, zeinaren bidez argitaratu baitzen Egonkortzeko EPE-ko oposizio-lehiaketa sistemaren eranskineko esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, erdi-mailako teknikarien lanbide-taldeko ingeniari teknikoaren kategorian (mantentze-lanetako eta instalazioetako erdi-mailako teknikariaren lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.*

Azaroaren 4ko 1774/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu zen Egonkortzeko EPEko oposizio-lehiaketa sistemaren eranskineko esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, erdi-mailako teknikarien lanbide-taldeko ingeniari teknikoaren kategorian (mantentze-lanetako eta instalazioetako erdi-mailako teknikariaren lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

2025eko azaroaren 5ean, aipatutako Ebazpena argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean, eta hutsak aurkitu dira atal honetan: Eranskina: destino baten esleipena lortu duten pertsonen zerrenda. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua babesean, hutsak zuzenduko dira, Ebazpen honen eranskinean adierazitako moduan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, baliozkoak izango dira Ebazpen honek egindako aldaketak eragiten ez dien egintzak eta izapideak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 11ko 1832/2025 Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.

2025eko azaroaren 27a, osteguna

ERANSKINA  
 OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO EGONKORTZEA  
 DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA  
 MANTENTZE LANETAKO ETA INSTALAZIOETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA  
 TXANDA IREKIA - LEHIAKETA-OPOSIZIOKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangaia	Esleitutako destinoa	Hizkuntz eskakizuna / Derrigorrezko data
***9926**	Alzaga Gangotxi, Miriam	Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)- Egitura orokorrak / Basurtuko U. Ospitalea-Bilbao / Mantentze- lanak-Mantentze-lanak-Mantentze-lanak / Goizez-Goizez 08:00- 15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	3